

EMAKUNDE – EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

GENEROAREN ARABERAKO
ERAGINAREN EBALUAZIOA
GENEROAK
INFORMAZIOAREN
GIZARTEA



2013

“Generoaren araberako eraginaren ebaluazioa: Informazioaren Gizartea”

Dokumentu hau Red2Red Consultores enpresak egin du Emakunderentzat, eta Eusko Jaurlaritzaren Herri Administrazio eta Justizia Sailaren eta Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren berdintasuneko administrazio-unitateen laguntza izan du.

2013ko iraila

AURKIBIDEA

1. TESTUINGURUA	4
2. GENERO-ERAGINA EBALUATZEKO AZTERTU BEHARREKO FUNTSEZKO ALDERDIAK	6
2.1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN PRESENTZIA SEKTOREAN	6
2.2. BALIABIDEAK ESKURATZEKO DESBERDINTASUNAK	12
2.3. EMAKUMEEN ETA GIZONEN PARTE-HARTZE DESBERDINA .	18
2.4. GIZARTE-ARAUEN ETA BALIOEN ERAGINA	21
2.5. BERDINTASUNAREN ALORREKO AGINDU ESPEZIFIKOAK ...	25
3. LEGEDIA	28
4. DATU-ITURRIAK.....	30
5. ERREFERENTZIA-AGIRIAK	32

1. TESTUINGURUA

Daniel Bell soziologo estatubatuarrek “informazioaren gizartea” kontzeptua asmatu zuen *Industria ondoko gizartearen etorrera* obran eta, 1973. urtean aurreikusi zuenez, jakintza teorikoa informazioaren gizartearen ardatz nagusi bihurtu da eta jakintzan oinarritutako zerbitzuak, aldiz, ekonomia berriaren eta informazioan eta jakintzan oinarritutako gizarte berriaren egitura nagusi.

Azken hamarkadetan bizi izan dugun iraultza teknologikoak paradigma-aldaketa eragin du ekonomian eta gizartean, eta giza garapenaren etapa berri baterantz bideratu gaitu; etapa berri horretan, informazioa, komunikazioa eta jakintza gailendu dira ekonomiari eta giza jarduera guztiei dagokienez. Testuinguru horretan, IKTek areagotu egin dute aldaketa, baina, horretaz gain, aldaketa horren euskarri nagusi ere bihurtu dira. Garapenaren etapa berri honetan, gizarteko kideek (herritarrek, Administrazioak, enpresek, beste agente batzuek) ahalmen ia mugagabea dute mota guztietako edukiak ia-ia berehala eskuratu, partekatu, zabaldu eta artxibatzeke, eta historia osoan ez da horrelakorik gertatu; fenomeno berria da hori, bai eta gizarte-aldaketa sakonen eragile ere.

Testuinguru honetan, emakumeen eta gizonen artean desberdintasun handiak agertzen dira Informazioaren Gizartean (IG), baliabide, ondasun eta zerbitzuak txertatu edo eskuratzeari, parte-hartzeari, erabiltzeari, baliatzeari eta kontrolatzeari dagokienez, IKTekin loturik dauden heinean. Desberdintasun horiek oinarri-oinarritzko alderdietan gertatzen dira, hala nola azpiegituretarako, Internetarako edo gailu teknologiko aurreratuenetarako sarbidean; bai eta informazioaren eta komunikazioen teknologia horiek erabiltzeko moduan ere (generoarekin loturiko eten digitalak). Halaber, eten digitala sumatzen da emakumeek interneteko edukiak sortzean edo espazio zibernetikoak eskuratzean, eta komunikabideetan duten partaidetzan eta presentzian.

Ildo beretik, emakumeak eta gizonak ez dira berdin hurbiltzen IKTetara, eta desoreka hori oso lotuta dago emakumeak eta gizonak jakintza-arloka desberdin banatzearekin eta parte hartzearekin, bai hezkuntza-sektorean (ikasle eta irakasle), bai IKTen produkzio-sektorean (partaidetza eta presentzia sektore teknologikoetako enpresetan, teknologiak sortzen, ikus-entzunezko edukiak sortzen, berrikuntzan eta abarretan). Egoera horrek arriskuan jartzen ditu emakumeen enplegarritasuna eta sektore horietan okupazioa lortzeko eta eragina izateko etorkizunean izango dituzten aukerak; izan ere, sektore horien garrantzi ekonomikoa gero eta handiagoa da, dela zenbateko absolutuetan, dela zenbateko erlatiboetan.

Egoera horren aurrean, Administrazio Publikoek ezin dute gizartean eta ekonomian gertatzen diren aldaketetatik at geratu, eta eraldaketa horien aitzindari izan beharko lukete, sortutako aukerak baliatzeko gai izan

daitezen; horretarako, gizartearen premiei erantzun behar diete, eta gizarte bidezkoagoa, partaidetza handiagoa eta jasangarriagoa lortzen lagundu behar dute. Ildo beretik, Egiturazko Funtsen bitartez Europako Batzordeak 2014-2020 aldirako egin dituen mandatu edo aginduak bildu behar dira; izan ere, gai honek garrantzi handia hartu du EBko gune garatuenetan (EAE da horietako bat).

Azken batean, Informazioaren Gizartean berdintasunezko garapena eta partaidetza lortzeko, ezinbestekoa da berdintasunaren arloan egun indarrean dagoen legerian ezarritako mandatuak egiaz betetzea; izan ere, lege horietan, besteak beste, alderdi hauek lantzen dira: botere publikoen betebeharra, emakumeek IGan berdintasunezko sarbidea izateko eta eremu teknologikoetan emakumeak protagonista moduan txertatzea sustatzeko; emakumeak teknologiaren sektore aurreratu eta intentsiboenetan okupatzea; egoera txarrean dauden kolektiboen e-gizarteratzea, eta emakumeei IGan eta ICTetan parte hartzea eragozten dieten oztopoak ezabatzea (bereziki kulturaren eta gizartean egun nagusi diren ideiekin loturikoak).

2. GENERO-ERAGINA EBALUATZEKO AZTERTU BEHARREKO FUNTSEZKO ALDERDIAK¹

2.1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN PRESENTZIA SEKTOREAN

Emakumeek eta gizonek Informazioaren Gizartean (hemendik aurrera, IG) duten presentzia eta partaidetza ez dira berdinak; izan ere, eremu hori, tradizioz, gizonekiko hurbilagoa izan da haurrek txiki-txikitatik jasotzen duten generoaren arabera sozializazio-prozesu desberdinaren ondorioz.

Sozializazio-prozesu desberdin horren ondorioz, a priori eta oro har, emakumeek ez dute IKTetarako hainbesteko joerarik, ez baita sektore oso "femeninoa". Hori eta beste hainbat faktore kontuan hartuta (errenta erabilgarriaren maila txikiagoa edo prestakuntza-maila txikiagoa), lehen ondorioa zera da, desoreka dagoela hori guztia ahalbidetzen duten azpiegitura eta gailuetarako sarbidean.

Hori horrela dela, **azpiegitura eta gailuen erabilgarritasunari eta horietarako sarbideari dagokionez**, Eustaten arabera, 2013. urtean emakumeetatik % 73k badu ordenagailu motaren bat; gizonen kasuan, ordea, ehuneko handiagoa da (% 79). Zehazki, EAEko emakumeen % 41ek badu mahai gaineko ordenagailu bat etxean (gizonen kasuan, % 47k); % 55ek ordenagailu eramangarria du (gizonen kasuan, % 58k) eta % 69,4k interneterako sarbidea du etxean (gizonen kasuan, % 73,8). Halaber, EAEko emakumeetatik % 17k badu gailu mugikorren bat, hau da, PDA, tablet edo pocket PC bat (gizonen kasuan, % 18k).

EAEko gizonen eta emakumeen kasuan, **bestelako gailu elektroniko eta IKTen sarbide eta kontsumoari dagokionez**, herritar gehienek badute telebista eta kable bidezko telebista-zerbitzua eta/edo telebista digitala, eta sexuaren arabera ehunekoak antzekoak direla esan dezakegu. EAEko emakume gutxiagok dituzte antena parabolikoak (% 6,5; gizonak % 8,5), edo musika-katea (emakumeak % 53 eta gizonak % 58), DVD erreproduzigailua (% 68 eta % 72%, hurrenez hurren) edo argazki-kamera digitala (% 67 eta % 71, hurrenez hurren).

Horren osagarri, EIN erakundeak 2012. urterako emandako datuen arabera² EAEko etxe guztien % 71,4tan **banda zabaleko azpiegitura** dago interneten

¹ Zenbait kasutan, arazoak izan dira Informazioaren Gizartearen alderdi jakin batzuei buruzko EAEko datu berezituak emateko; azalpenak emango ditugu dagokionean.

² *Etxeetan Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien ekipamenduari eta erabilerari buruzko inkesta*, 2012.

sartzeko, eta ehunekoa are handiagoa da (% 99,8) Interneterako sarbidea duten etheen guztikoa hartzen badugu erreferentziatatzat³.

Interneterako sarbide mugikorra izateko banda zabala duten telefono mugikorrei dagokienez, 2010. urtean ⁴ EAEko emakumeen % 11,7k bazuen horrelako gailuren bat (gizonen kasuan, % 24,5); horrek esan nahi du nabarmena dela internetera sartzeko horrelako gailu aurreratuak eta gailu horietarako sortzen diren aplikazio eta zerbitzuak erabiltzen ohitzeko aukeretan dagoen aldea.

Horrela, dimentsio jakin batzuetan datu bereizirik ez dagoen arren, ikusiko dugunez, EAEko emakumeen eta gizonen artean lehen desberdintasunak agertuko dira, I Gan berdintasunezko partaidetza lortzeko azpiegitura egokien erabilgarritasunean eta sarbidean. "Generoaren lehen eten digitala" esaten zaio horri.

Teknologiak eta azpiegiturak eskuratzeko zailtasun handiagoa izateak lotura zuzena du herritarrek IKTak **erabiltzeko maiztasunarekin eta moduarekin**. 2013. urtean⁵, EAEko emakumeetatik % 32k esan du ez duela inoiz **ordenagailurik erabili**, % 6k dio inoiz erabili izan duela eta % 62k azken 3 hilabeteetan egunen batean erabili duela; gizonen kasuan, handiagoak dira balio guztiak (% 23, % 6 eta % 70, hurrenez hurren). Hori, sarbiderako eragozpenekin ez ezik, IKTekiko desafekzioarekin ere loturik egon daiteke, emakumeen artean maizago gertatzen baita, jarraian ikusiko dugun moduan.

Internet erabiltzen dutenei dagokienez, bi sexuen arteko proportzioak parekatuak daudela esan dezakegu: EAEko emakumeen % 4k eta gizonen % 3k esan du internet erabili izan duela inoiz lehenago, eta % 96k eta % 97k (hurrenez hurren), aldiz, azken 3 hilabeteetan erabili duela. IKTen erabileraren "e-intentsitateari" erreparatzen badiogu sexuaren arabera, EIN erakundearen datuei jarraiki, EAEn, 2012. urtean emakumeen % 67k eta gizonen % 74k internet erabili zuten, gutxienez, astean behin, inkesta egin aurreko 3 hilabeteetan⁶; horrek zera adierazten du EAEn gizonek emakumeek baino maiztasun eta intentsitate handiagoz erabiltzen dutela internet.

Alabaina, EINen datuetan argi ikus daiteke IKTen sarbidean eta erabileran dauden desberdintasunak, hein baten, txikitzen ari direla **nesken eta mutilen** artean: iaz, EAEn, 10-15 urteko nesketatik % 96k ordenagailu bat erabili du azken 3 hilabeteetan (mutilen kasuan, % 98), nesketatik % 93k

³ Datu horiek Autonomia Erkidegoaren arabera aztertzeke ustiatzen direnean, ez da sexuaren arabera banaketarik egiten.

⁴ Observatorio e-Igualdad (2010) *La brecha digital de género en España: análisis multinivel* azterlanetik ateratako datuak.

⁵ Eustat (2013). *Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta. Familiak*.

⁶ Alabaina, beste ezein iturrik ez du horri buruzko informazio zehatzagorik ematen.

internet erabili du (mutilen kasuan, % 94) eta nesketatik % 80k telefono mugikorra du (mutilen kasuan, % 72).

IKTetarako sarbidearen azterketaren osagarri, **IKTak zertarako erabiltzen diren** aztertuko dugu. "Bigarren eten digitala" esaten zaio horri. Eustat-en datuei jarraiki, ordenagailuaren **erabilera bestelakoa** da erabiltzailearen sexuaren arabera.

Ordenagailuekin egiten diren eragiketa eta lan oinarritzkoenak hauek dira: interneteko nabigatzaileak erabiltzea (% 95 bi sexuetan), testu-tratamenduko programak erabiltzea (E=% 61, G=% 61), musika entzutea (E=% 46, G=% 51), CDak edo DVDak kopiatzea (E=% 24, G=% 26); jarduera horiek oso zabaldua daude, eta bi sexuetako herritarrek antzeko balioak dituzte erabilerari dagokionez. Lanean ordenagailua erabili behar izatearekin loturik egon daiteke datu hori, gaur egun ezinbesteko lan-tresna bihurtu baita ia lanbide-jarduera guztietan.

Egindako lanaren zailtasun-maila handitu ahala, erabilera-maila txikitu egiten da, eta genero-etena areagotu egiten da erabileran. Esate baterako, lan espezializatuenetan edo info-trebetasun aurreratuak (kalkulu-orriak, datu-baseak edo software jakin batzuk) eskatzen dituzten lanetan, agerian geratzen dira alde horiek. Azken 3 hilabeteetan ordenagailua erabili duten EAEko emakumeen % 22k dio inoiz datu-baseren bat erabili duela; % 30ek berariazko softwarea erabili du eta % 40k kalkulu-orri bat; gizonen kasuan, aldiz, % 27, % 38 eta % 49 dira, hurrenez hurren. Datu horiek "adina" aldagaiarekin uztartuz gero, ikusten da, oro har, EAEko emakumeen eta gizonen arteko etena areagotu egiten dela 35-54 urteko tartean⁷, aplikazio horiek erabiltzeari dagokionez. Antza, adina faktore erabakigarria da, landa-ingurunekoa izatea baino gehiago, EAEko emakumeek horrelako teknologietarako sarbide-maila txikiagoa izateari erreparatuta⁸.

Ordenagailuaren bestelako erabilerak zuzen-zuzenean loturik daude genero-rolekin: ordenagailua jolasteko edo ongi pasatzeko erabiltzea gizonen gauza da (gizonen % 26 eta emakumeen % 21 ordenagailuarekin jolasean ibili da azken 3 hilabeteetan).

Internet zertarako erabiltzen den aztertzen badugu, ehunekoak nahiko orekatuak daude EAEko gizonen eta emakumeen artean, baina, hala ere, badira aldeak; taula honetan ikus ditzakegu:

⁷ Hori azaltzen duten hipotesien artean, litekeena da emakumeen eta gizonen info-trebetasunen egoera parekatuagoa izatea 15-34 urteko tartean (gazteak naturaltasun handiagoz erlazionatzen dira teknologia horiekin) eta 55 urtetik gorako tartean (emakumeek eta gizonak ez dute hainbesteko loturarik IKTekin).

⁸ Ikusi horri buruz hemen egindako azterketa: IKAT (2011) *Emakumeak landa-eremuan*.

Internetera konektatzearen helburua	Guztira	G.	G %	E.	E. %
1. Profesionala	281.600	147.500	% 22	134.100	% 23
2. Akademikoa	44.600	22.300	% 3	25.700	% 4
3. Pertsonala	587.600	316.800	% 49	270.900	% 46
4. Beste batzuk	325.000	162.000	% 25	162.900	% 27
GUZTIRA	1.242.200	648.600	% 100	593.600	% 100

Geuk egina, honako hau oinarri hartuta: *Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta. Familiak, Eustat, 2013*

Gizonek eta emakumeek Internet zertarako erabiltzen duten datuari dagozkion ehuneko bertikalak ikusita, jardun-ildoak ez dira berdinak; batez ere erabilera pertsonalerako konektatzen direnean, EAEko erabiltzaileen artean gizon gehiago daude emakumeak baino.

Jarraian, EAEko herritarrek Interneten erabiltzen dituzten zerbitzuak eta erabilerak azalduko ditugu, sexuaren arabera:

Erabilitako internet-zerbitzuak	Guztira	G.	G %	E.	E. %
Oinarrizko erabilerak eta zerbitzuak					
Posta elektronikoa	1.030.100	547.700	% 89	582.400	% 89
Txatak, elkarrizketak	366.600	208.600	% 32	158.000	% 27
Mugikorretara mezuak bidaltzea	93.200	49.500	% 8	43.800	% 7
Aisialdia					
Gizarte-sareak (Facebook, Twitter, Tuenti...)	631.900	324.400	% 50	307.500	% 52
What'sApp edo mezularitzako bestelako aplikazioak	713.700	362.600	% 56	351.100	% 59
Turismo-erreserbak	423.900	222.500	% 34	201.300	% 34
Komunikabideak	929.700	515.500	% 80	414.100	% 70
Aisialdi-zerbitzuak	688.100	377.800	% 58	310.300	% 52
Osasunari buruzko informazioa	377.200	177.600	% 27	199.600	% 34
Enplegua eta hezkuntza					
Hezkuntza arautua	109.400	53.000	% 8	65.400	% 9
Lana bilatzeko ikastaroak	41.000	19.100	% 3	21.900	% 4
Matrikulazio eta kontsulta akademikoak	234.200	110.200	% 17	123.900	% 21
E-administrazioa					
Administrazioaren informazioa	564.200	297.400	% 46	266.900	% 45
Inprimaki ofizialak deskargatzea	349.700	189.300	% 29	160.300	% 27
Betetako inprimakiak bidaltzea	285.200	152.700	% 23	132.500	% 22
E-merkataritza					
Ondasunak eta zerbitzuak saltzea	58.000	37.000	% 6	21.000	% 4
Ondasunak eta zerbitzuak erostea	483.600	250.500	% 39	233.100	% 39
Ondasunei eta zerbitzuei buruzko informazioa	958.600	509.200	% 79	449.400	% 76
Erabilera eta zerbitzu aurreratutak					
Telefonoa, bideokonferentzia	213.100	120.600	% 19	92.400	% 16
Banku-jarduera elektronikoa	527.800	305.500	% 47	267.300	% 45
GUZTIRA	1.242.200	648.600	% 100	593.600	% 100

Geuk egina, honako hau oinarri hartuta: *Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta. Familiak, Eustat, 2013*

Aurreko taulan ikus daitekeenez, EAEko gizonen eta emakumeen antzeko jokabidea izaten dute **interneteko oinarriko zerbitzu eta aplikazioen erabilieran**, hau da, trebetasun informatiko eta elektronikoko txikiak eskatzen dituztenetan; esate baterako, posta elektronikoa, txatak edo mugikorretara mezuak bidaltzea⁹. Baieztapen hori sare sozialak eta mezularitza-aplikazioak erabiltzeari dagokionez ere aplikatu daiteke, baina, azken horien kasuan, EAEko emakumeek apur bat gehiago erabiltzen dituztela esan dezakegu.

Era berean, taulan azaltzen den bezala gizonen IKTak gehiago erabiltzen dituzte jardueren munduarentzat edo aisialdirako; hala nola komunikabideak edo jolas-programak eta abar. Internet hegaldiak, bidaiak edo hotelak planifikatu eta erreserbatzeko erabiltzea ere antzekoa da bi sexuetan (bi sexuetan, % 34k erabiltzen du horretarako). Hala ere, osasunari edo elikadurari buruzko informazioa lortzeko, emakumeek erabiltzen dute gehiago internet. Badirudi erabilieran sumatzen diren alde horiek emakumeek eta gizonen barneratuta dituzten genero-estereotipoekin eta -rolekin loturik daudela, horiek espazio birtualera eramanda.

Halaber, zenbateko absolutu eta portzentualetan, internet enpleguarekin eta prestakuntzarekin loturiko kontuetarako erabiltzen dutenen artean, EAEko emakumeen proportzioa handiagoa da (% 10etik gorako proportzian).

“E-merkataritza” eta “e-administrazioa” zerbitzu eta gestioei zuzenean dagokienez (IGaren aurrerabidean *termometrotzat* hartzen dira Europako Agenda Digitalerako), EAEko gizonen, proportzian, zertxobait gehiago erabiltzen dituzte e-administrazioa zerbitzuak; bereziki, inprimakiak deskargatu eta bidaltzeko.

“E-merkataritzari” dagokionez, EAEko emakumeen eta gizonen jokabidean badira aldeak, txiki-txikiak diren arren. Azken 3 hilabeteetan internet erabili zuten emakumeetatik % 39k eta gizonetatik % 40k esan du ez duela inoiz ezer erosi Internet bidez. Emakumeetatik % 20k eta gizonetatik % 23k dio erosketaren bat egin duela Internet bidez (baina ez azken 3 hilabeteetan). EAEko emakumeetatik % 39k eta gizonetatik % 38k esan du erosketaren bat egin duela aurreko 3 hilabeteetan.

Alde hori ez da askoz ere handiagoa ondasun eta zerbitzuen salmentari dagokionez: aurreko 3 hileetan internet erabili zuten EAEko gizonetatik % 6k internet bidez saltzeko zerbitzuak erabili zituzten; emakumeak, berriz, % 4 izan ziren.

Azkenik, **interneten erabilera aurreratuei** dagokienez, alde adierazgarriak ikusi ditugu: interneteko gizonen erabiltzaileetatik % 19k bideo-konferentziak edo bideo-deiak egiten ditu, eta % 47k banka elektronikoa erabiltzen du; aldiz, emakumeak % 16 eta % 45 dira, hurrenez hurren. Horrelako zerbitzuak erabiltzeko “e-trebetasun” aurreratuak behar

⁹ Gailu mugikorretatik.

izaten dira, eta, ohiko moduan, trebetasun horiek emakumeek gizonen baino gutxiago garatzen dituztenez, fenomeno hori gertatzen da; hartara, emakumeek mugatuagoak dituzte erabilera horiek.

IKTak non erabiltzen diren aztertzen badugu, EAEko herritar askok etxean erabiltzen ditu, eta, hein txikiagoan, lantokian, ikastetxean edo beste nonbait.

Gizonak eta emakumeak internetera sartzeko proportzioak oso-oso antzekoak dira toki guztietan: etxetik (emakumeen % 93 eta gizonen % 91), lantokitik (emakumeen % 38 eta gizonen % 37); ikastetxean (% 11 bi sexuetan), baina hein txikiagoan beste toki batzuetan, hala nola beste norbaiten etxean, ziber-kafeetan, interneterako sarbide publikoetan, elkarteetako lokaletan eta/edo zentro zibikoetan, liburutegietan eta abar. Azken toki horietatik sartzten dira interneten EAEko emakume internauten % 16 eta gizonen % 19¹⁰.

Horrek lotura izan dezake emakumeek ugalketako eta etxeko lanen arduraren handiagoa hartzearekin; bi ondorio izaten ditu: alde batetik, denbora gehiago egoten da etxean, eta, bestetik, denbora libre gutxiago du aisialdirako edo berak nahi duena egiteko; beraz, aukera gutxiago du beste testuinguru eta/edo toki publiko batzuetatik IKT horietarako sarbidea izateko.

Interneteko erabilera aurreratuekin loturik, **eduki digitalak sortzearekin eta kudeatzearekin loturiko zeregin eta jardunbideak** aipatuko ditugu, baina ez dago horiei buruzko estatistika-informaziorik. EAEn ez dago datu orokorrik webguneak, blogak sortzeari eta eduki digitalak sortu eta kudeatzeko bestelako ekimen batzuei buruz, eta, batik bat, ez dago horrelako daturik sexuaren arabera banatuta; beraz, oso zaila da emakumeen partaidetza zenbatekoa den jakitea, gero eta indar handiagoa hartzen ari den eremu honetan. Arlo horietako datu-gabezia hori emakume eta gizonen arteko egoera desberdina aztertu eta ikertzeko ahalegin handiagoa egin behar den seinale da, eta genero-ikuspegia txertatuta dagoen esku-hartze publikoa bideratzeko balio dezake.

¹⁰ Horri dagokionez, Autonomia Erkidegoko datuen berriazko ustiapena aztertzea komeni da, betiere Emakumearen Institutuaren e-Berdintasuneko Behatokiak eta UCMk egindako EInen *Encuesta de Equipamientos y uso de las TIC en Hogares* inkestan oinarrituta; inkesta hori lehen aipatu dugun *La brecha digital de género en España: análisis multinivel* azterlanean agertzen da.

2.2. BALIABIDEAK ESKURATZEKO DESBERDINTASUNAK

IGan emakumeen eta gizonen presentzia desberdina izateak lotura handia du hezkuntza-baliabideetan, enplegu-baliabideetan, IKTekin loturiko zerbitzu eta ekipamenduetan, bai eta komunikabideetan duten partaidetza desberdinarekin.

Heziketa eta prestakuntza: Emakumeek eta gizonek ez dituzte prestakuntzarekin loturiko aukera berdinak egiten nerabezaroan, ez eta geroago ere, goi-mailako ikasketak aukeratzean. Prestakuntza-aukerak egitean hainbat faktorek eragiten dute, besteak beste, generoaren arloko gizarte-erakuntzek. Izan ere, eraikuntza horiek, hezkuntzari dagokionez (eta aurrerago azalduko dugunez), neska gazteak jakintza-arlo "femeninoetara" bideratzen dituzte, hau da, Gizarte eta Giza Zientzietara; mutil gazteak, berriz, aukera teknikoetara.

Adibidez, **arabide orokorreko irakaskuntzan** jada sumatzen da desoreka dagoela nesken eta mutilen artean; mutilek **batxilergoan jakintza-adar zientifiko-teknologikoetara** jotzen dute. EAEn, 2010-2011 ikasturtean, 14.659 haur zeuden matrikulatuta EAEko ikastetxe guztietako Batxilergoko lehen eta bigarren mailako aukera zientifiko-teknologikoetan. Neskak, ordea, ikasle horien erdia baino gutxiago ziren (% 45).

Aldiz, **erdi- eta goi-mailako lanbide-heziketa arautuan** aukera desberdinak egiten dituzte EAEko gazteek.

Eustaten arabera, 2011-2012 ikasturtean **erdi-mailako LHn** ikasleetatik % 37 emakumeak ziren. Neska gazteek aukera hauetara jo zuten: Administrazioa eta kudeaketa, Irudi pertsonala, Osasuna, Ehungintza, Jantzigintza eta Larrugintza, edo Gizarte- eta kultura-zerbitzuak (ikasleen % 70-80 osatzen zuten). IKTekin lotura handieneko espezialitateetan partaidetza txikiagoa izan zuten: % 4,7 Elektrizitatea eta elektronikan, % 11,4 Informatika eta komunikazioetan. Partaidetza orekatuagoa izan zen Irudi eta soinuari dagokion erdi-mailako espezialitatean (% 48,5).

LHko goi-mailako ikasketetan, 2011-2012 ikasturtean nabarmen areagotu zen emakumeen partaidetza, oro har (% 41 arte), eta espezialitate jakin batzuetan (Informatikan, partaidetza ia 8 puntu handitu zen). Hala ere, espezialitate teknikoetan nesken presentzia eta sarbidea txikiagoa da oraindik ere: % 5,8 Elektrizitatea eta elektronikan, % 19,3 Informatika eta komunikazioetan. Alabaina, Irudi eta soinuari dagokion goi-mailako espezialitatean % 32,4ra murriztu zen partaidetza.

Unibertsitateko ikasketei gagozkiela, egoera ez da asko aldatzen orain arte azaldu dugunarekiko. Emakumeek bokazio zientifiko-teknologiko txikiagoa dute.

Espezialitate teknikoetako unibertsitate-ikasketak amaitu zituzten ikasleak, 09-10 ikasturtea EAEn	Lehen zikloa	%	Bigarren zikloa	%	Guztira	%
Emakumeak	459	28,5	135	27,4	984	31,2
Gizonak	1.152	71,5	358	72,6	2.171	68,8
GUZTIRA	1.611	100	493	100	3.155	100

Geuk egina, honako hau oinarri hartuta: Eustat-en *Ikasle, irakasle eta ikasle txeei buruzko inkesta* (2012)

Aurreko taulan ongi ikus daitekeenez, EAeko lehen eta bigarren zikloko unibertsitate-ikasketak amaitu zituzten ikasleen heren bat, gutxi gorabehera, emakumea zen **espezialitate teknikoetan**, 2009-2010 ikasturtean. Datu horiek kontraste egiten dute emakume gazteak goi-mailako ikasketetan txertatzeari buruzko azken hamarkadetakako datuekin, bai eta beste jakintza-arlo batzuetan dituzten presentziaren ehuneko handiekin ere; izan ere, espezialitate horietakoen ia bikoitza baita (jakintza-adar guztietan, unibertsitate-ikasketak amaitu zituzten ikasleetatik % 60, batez beste, emakumeak ziren, eta, % 82, osasun-arloko espezialitateetan, esate baterako).

IKTekin eta IGarekin lotura duten **gradu eta lizentzia tekniko zehatzetan**, Fisika karreran gradua edo lizentzia lortu zutenetatik % 32 emakumeak ziren, Matematika karreran % 61, Telekomunikazioetako goi-mailako ingeniarietan % 48, Informatikako goi-mailako ingeniarietan % 22, Ingeniaritza elektronikoa % 27, Sistemen ingeniari teknikoan % 22 eta Telekomunikazioetako ingeniari teknikoan % 30. Hori horrela dela, EAEn, unibertsitateko espezialitate teknikoak amaitu zituzten emakumeen ehunekoak, oro har, txikiak dira diziplina guztietako batez besteko datuekin alderatuta (lehen esan dugunez, % 60 baita).

Gazteen prestakuntza-aukeren egoeraren osagarri, **irakasleei** buruzko azterketa egin dezakegu. Oso informazio gutxi dago bigarren mailako **ikasketetako** edo lanbide-heziketako espezialitateetako irakasleen sexuaren araberako banaketari dagokionez.

Feminizazioa nabarmena da irakasle guztietan (Hezkuntza Ministerioaren estatistiken arabera, EAEn, araubide orokorreko irakasleen % 74 emakumeak dira), LHko ikasketak teknikoetan izan ezik, non emakumezko irakasleak % 33 baino ez diren.

Bestalde, **unibertsitateko ikasketen** kasuan, EAeko irakasle eta ikertzaileetatik % 41 emakumeak ziren 2010-2011 ikasturtean. Hala ere, irakasle horien banaketa irregularra da jakintza-arloari eta irakasle taldeetako partaidetzari dagokienez; beraz, bereizketa horizontal eta bertikala gertatzen da generoarekin loturik.

Izan ere, **espezialitate teknikoetan, emakumezko irakasle eta ikertzaileen presentzia** okupazio guztietan batez bestekoa baino txikiagoa da jakintzar- arlo guztietan. Hona hemen adibideak: Konputagailuen Arkitektura eta Teknologia, % 20; Konputazio Zientzia eta Adimen Artifiziala, % 18; Elektronika, % 25; Fisika Aplikatua, % 31; Sistema Ingeniaritza, % 15; Ingeniaritza Elektrikoa, % 20; Hizkuntza eta Sistema Informatikoak, % 47; Teknologia Elektronikoa, % 12 edo Seinalearen Teoria eta Komunikazioak, % 20. Ehuneko horiek askoz txikiagoak dira tradizioz *feminizatuta* egon diren beste diziplina batzuekin alderatuta, irakasle eta ikertzaileen artean emakumeen presentzia eta partaidetza handiagoa izan baita azken horietan. Era berean, lanbide-kategoriaren arabera banaketa ere heterogeneoa da, eta bereizketa bertikal nabarmena sumatzen da.

Lehen aipatu ditugun beste faktoreekin batera, goi-mailako irakaskuntza teknikoetan emakumezko erreferenterik ez izateak zera eragiten du, neska gazteen artean bokazio zientifiko-teknikoak indar handirik ez hartzea.

Enplegua eta ikasketa profesionala. EAEko emakumeek eta gizonek IKTekin eta Informazioaren Gizartearekin loturiko sektoreetako enpleguan duten partaidetza deskribatzeko hainbat eragozpen izaten dira, oso datu gutxi daudelako eta daudenak ere ez daudelako erregulatuta eta sistematizatuta: arlo honetan, erreferentzia-iturriak honako hauek dira: EINen *IKT sektoreko adierazleen inkesta* (baina datuak ez ditu Autonomia Erkidegoaren arabera bereizten) eta Eustatek emandako datuak (horiek ere partzialak)¹¹.

Beraz, EINen sailkapena oinarri hartuta (IKT sektoreak, IKT zerbitzuak, IKT manufaktura-industriak eta zerbitzu-industriak biltzen ditu)¹², 2011. urtean Estatu osoan sektore horretan **okupatutako langileetatik** % 23 emakumeak ziren. Ikertzaileen artean ere ordezkartza oso txikia dute emakumeek (% 22 baino ez dira).

Eustaten arabera, EAEn 2010. urtean 173 enpresa zeuden IKT sektorean, 28 industrian eta 145 zerbitzuetan. Enpresa horietan, emakumeek 570 lanpostu betetzen zituzten eta horietatik % 28 IKT zerbitzuekin loturik zeuden eta % 20 IKT industriarekin. Okupazio motaren arabera, 193 enplegu ikerketakoak ziren, % 27 zerbitzuetan eta % 23 industrian. Sektore horretako emakumeen gainerako enpleguak (377) askotariko okupazioak ziren. Beraz, zenbatekoei erreparatuta esan dezakegu genero-etena dagoela IKT lanbideetako txertatzean eta partaidetzan.

¹¹ Informazioaren Gizarteko jardura-sektoreetako enpleguari buruz Eustatek ematen dituen datuak ez dira eguneratu 2010. urteaz geroztik. Era berean, datu horiekin ezin dugu aztertu enplegu hori sektorearen arabera nola banatzen den, eta ez du informaziorik ematen interes potentzialeko beste aldagai batzuei buruz (adina, prestakuntza, lanbide-kategoriak eta abar).

¹² Programa informatikoak editatzea, telekomunikazioak, kontsultoretza, programazioa, web-atariak, datu-hosting-a eta informatikarekin loturiko jarduerak, ordenagailuak eta komunikazio-ekipoak konpontzea.

Eduki digitalen industria gero eta indar handiagoa hartzen ari da, eta etorkizunean potentzial handia du enplegu-aukerak eta aberastasuna sortzeko. Sektore horietan jarduera ekonomiko gehien sortzen dutenen autonomia-erkidegoen artean dago EAE, Telekomunikazioen eta Informazioaren Gizartearen Behatoki Nazionalaren (ONTSI) datuei jarraiki. Sektore horietako enpresetatik % 4,3 Euskadin dago eta, batik bat, soinua grabatzera eta musika editatzera bideratzen direnak nabarmentzen dira (EAEko sektore horietako enpresetatik % 60), bai eta bestelako informazio-zerbitzuetakoak ere (% 64).

Halaber, eduki digitalen industrian 510.700 langile zeuden Estatuan eta horietatik % 5,6 (hau da, 28.500) EAEn zeuden. Enplegu horietatik % 38 emakumeenak ziren (10.800). Datu horiek alde batera utzita, ez dugu estatistika-informaziorik sektore honetako enplegua xehetasun handiagoz aztertzeko, ez eta emakumeen partaidetza zenbatekoa den jakiteko ere.

Ondorio gisa zera esan dezakegu, eskura ditugun datuen arabera eta generoarekin loturiko kultura-*mandatuak* eta prestakuntza-aukerak kontuan izanik, emakumeak bereziki penalizatuta daudela IKT sektoreetan, gizonen aldean presentzia askoz ere txikiagoa baitute.

Ekipamendu eta zerbitzuetarako sarbidea. IKTetako eta IGan duten sarbide eta partaidetzari dagokienez emakumeak desabantailan daudela esan dugu, eta, egoera horri aurre egiteko, politika publikoak eta horretarako prestatutako azpiegitura eta ekipamendu publikoak ditugu.

EAEn esparruan, egiteko hori KZgunea Telezentroen euskal sare publikoak bete izan du, hein handi batean. Sare horren helburuetako bat eten digitala desagerraraztea da, gizarteko kideen bazterketa-arriskua murriztea eta herritarrak teknologia berrietako trebetasunak ikasteko prestatzea. EAEko 251 udalerritan 276 zentro daude; beraz, herritarrei dagokienez, ia jende guztirengana iristen dela esan dezakegu.

2001. urtean sortu zenez geroztik, Zentroen Sarearen erabiltzaile kopurua etengabe handitu da: 2001. urtean 5.278 erabiltzaile izan zituen eta 2012an 380.000 erabiltzaile izatera iritsi da. Erabiltzaile estandarren profila ez da askorik aldatu: zentro horietako zerbitzuak erabiltzen dituztenetatik % 58 emakumeak dira. Emakumezko erabiltzaile horien artean, etxeko andreen proportzioa urtean % 8tik % 10era bitarte izan da.

Era berean, alfabetatze digitaleko ikastaroak eta interneteko bestelako trebetasunak ikasteko prestakuntza ikastaroak egiten dituztenen artean, gehiengoa emakumea da: urtean prestakuntza jaso duten emakumeen batez besteko ehunekoa % 60 inguru izan da eta, horien artean, beren burua "etxeko andretzat" jo dute % 13-15ek¹³.

¹³ KZgunea Sareak ez du pertsona aktiboetarako buruzko daturik ematen sexuaren arabera banatuta.

Horrela, bada, datuen arabera, Sare horrek alfabetatze digitala jasotzeko eta IKT eta interneterako sarbidea izateko aukera eskaintzen die EAEko herritar askori; hain zuzen ere, IGTik potentzialki baztertuta daudenei eta, bereziki, emakume kalteberenei (etxeko andreak, landa-eremukoak eta abar).

Emakumeei eta, bereziki, hainbat dimentsio eta aldagai (adina, nazionalitatea, ikasketa-maila, errenta-maila, desgaitasuna eta abar), gainjartzen edo batera gertatzen direlako laguntza gehien behar duten emakumeei IKTetarako sarbidea lurralde osoan ahalbidetuko dieten baliabide publikoen eskaintza izatea da generoarekin loturiko eten digitala desagerrarazteko gakoetako bat.

Komunikabideak. Komunikabideek eragin handia dute emakumeek IGan duten partaidetzan, ikuspegi bikoitzetik begiratuta: generoarekin loturiko estereotipo eta rola errepikatze eta egonkortze agentzia diren aldetik, bai eta IGaren beraren osagai diren aldetik.

Lehenik, komunikabideek **generoarekin loturiko estereotipoak eta rola erreproduzitzen** laguntzen dute, emakumeen eta IKTen arteko harremanetan. Ildo horretatik, informazioaren tratamendua sexista izaten da, eta sektore horietan emakumeen partaidetza ikusezin bihurtzeko joera dago, dela eguneroko bizitzan IKTen erabiltzaile diren aldetik, dela –batik bat– sektore horietako profesional diren aldetik, hau da, IKTen diseinatzaile eta sortzaile; azken batean, IGaren, ziberespazioaren eta horko edukien protagonista. Beste zenbait kasutan, sektore horietako protagonista diren emakumeei konnotazio peioratiboa esleitzen die informazioak, hizkuntzaren eta irudien bitartez.

Komunikabideek *bokazio-bereizketaren* fenomenoari lagun diezaiokete, **lanbide teknologikoekin eta IKTetako lanbideekin loturiko estereotipo** jakin batzuk hedatuta: informatikariak gizon azkartzat agertzen dituzte, azkarrak baina “freaky”-ak, gizarte-trebetasun askorik gabe eta harremanak egiteko zailtasunak dituztela, arraroak eta/edo aspergarriak; ingeniariak, aldiz, gizon koadrikulatutzat aurkezten dituzte, gizartearekiko isolatuta daudenak lanarengatik eta lanaldi amaigabeak egiten dituztela. Irudi horiek ez dira oso lagungarri neskatila eta neska gazteak eredu horiekin identifika daitezten¹⁴.

Beste gai bati helduta, komunikabide digitalak¹⁵ IGaren osagai dira, baina kasu horretan ere emakumeen presentzia eta partaidetza ez da orekatua. Egia da emakumeek lanpostu asko eskuratu dituztela komunikabide

¹⁴ Estereotipo horietako batzuk argi eta garbi agertzen dira telebistako hainbat serietan; CSI, The Big Bang Theory, Alias, X files..., edo marrazki bizidunetako serieetan: El laboratorio de Dexter, Los Simpsons edo Las aventuras de Jimmy Neutron, besteak beste.

¹⁵ Komunikabide tradizionalen bertsio digitalak (prentsa digitala, telebista edo irrati digitalak) edo soilik digitalak diren komunikabideak.

horietan, baina hala ere, haien partaidetza ez da inolaz ere ekitatiboa arlo guztietan: erabaki estrategikoak hartzen diren postuetan; landu, produzitu eta argitaratzen den informazioa kontrolatzen; edo informazioari ematen zaion tratamenduan.

2.3. EMAKUMEEN ETA GIZONEN PARTE-HARTZE DESBERDINA

Dokumentu honetan argi geratu denez, emakumeek IGaren eremuan duten partaidetza gizonena baino txikiagoa izan da orain arte, eta gaur egun ere oraindik hala da. Gertaera hori ez da kasualitatea, ez eta gertaera isolatu bat ere; izan ere, emakumeek hein txikiagoan parte hartu dute publikotzat jotako eremuetan, eta IKTak eta IGa eremu publikoak dira.

Horren harira, erakunde-mailan gertatzen dena aipatu behar da, IGaren erabakiak hartzeko gune guztietan oso txikia baita emakumeen ordezkartza. Erabakiak hartzeko guneetan emakumerik ez izatea eta ingurune horien maskulinizazioa bi faktore hauen ondorio dira: erabakieremuetan emakumeek oso mantso egitea gora, eta emakumeak berriki hasi direla arlo teknikoetan sartzen.

Zuzendari kargu publikoak: EAEn Informazioaren Gizartearen arloan eskudunak diren zuzendaritzako erakunde publikoetako erantzukizun handiko postuetan emakumeen presentzia gizonena baino txikiagoa da, baina aldea ez da hain nabarmena. Horretaz gainera, azken legealdietan, gai honekin loturiko sailburuen artean emakumeen presentziak gora egin du: VIII. legealdian Industriako sailburua eta X. legealdian Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua emakumeak izan dira. Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila eskuduna da IGaren arloan eta emakumeen presentzia paritarioa du: sailburu andrea, bi sailburuorde andre eta bi sailburuorde gizon ditu. Herri Administrazio eta Justizia Saila eskuduna da administrazio elektronikoan eta herritarrekiko arretan, eta sailburu gizona, sailburuorde emakume bat eta hiru sailburuorde gizon ditu. Era berean, Ogasun eta Finantza Sailean bai sailburua, bai lau sailburuordeak gizonaek dira.

Foru Aldundiei gagozkiela, Arabako Foru Aldundian diputatu nagusia gizona da eta gizonak dira, halaber, Ekonomia Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko arduradunak. Bizkaiko Foru Aldundiaren kasuan, ahaldun nagusia gizona da, bai eta Lehendakartzako, Ekonomia Sustatzeko eta Ogasuna eta Finantzak sailtetako arduradunak ere. Bukatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundian ere diputatu nagusia gizona da, bai eta arlo honetan eskuduna den Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko departamentuburua ere, baina Informazio Gizarterako Sistemen zuzendari nagusia emakumea da.

Unibertsitateko irakasleak: Aurreko atalean azpimarratu denez, EAeko irakasleen artean emakumeen partaidetza eta presentzia ez da modu berean pilatzen jakintza-arlo guztietan, ez eta lanbide-kategoria guztietan ere.

lido beretik, eta IKTekin loturiko unibertsitateko espezialitateei dagokienez, emakumeen kopurua txikiagoa da, bereziki, goi-mailako lanbide-kategorietan; honako taula honetan ikus dezakegu¹⁶:

EAEko unibertsitateko irakasleak IKT espezialitateetan, 09-10 ikasturtea	Unibertsitateko katedrak	E %	Unibertsitateko titularrak	E %
Konputagailuen Arkitektura eta Teknologia	3	0	12	16,7
Konputazio Zientzia eta Adimen Artifiziala	3	0	4	25
Elektronika	1	0	3	33,3
Fisika Aplikatua	17	23,5	48	35,4
Sistema Ingeniaritza	3	33,3	17	17,6
Ingeniaritza Elektrikoa	2	50	7	28,6
Hizkuntza eta Sistema Informatikoak	4	50	23	43,5
Teknologia Elektronikoa	2	0	18	16,7
Seinalearen Teoria eta Komunikazioak	4	25	6	33,3

Geuk egina, Hezkuntza Ministerioaren 2012ko datuak oinarri hartuta.

Sektoreko profesionalen elkarteak eta elkargoak: Emakumeek ordezkari txikia dute IKTeako berezko lanbide-elkarte eta -elkargoetako zuzendaritzako kide anitzeko organoetan edo zuzendaritza-postuetan.

Esate baterako, Euskadiko Informatika Ingeniarien Elkargo Ofizialaren zuzendaria gizona da. Euskal Herriko Telekomunikazio Ingeniarien Elkarteko zuzendaritza-batzordeko buru gizona da, eta 12 kidedatik 3 dira emakumeak. Euskadiko Teknologia Elektronikoen eta Informazioaren Industrien Elkartean (GAIA) zuzendaritza-batzordeko kide bat emakumea da (14 kide dira). EIKEN, Euskadiko Ikus-entzunezkoen Klusterrari dagokionez, emakume bat du buru eta zuzendaritza-batzordeko 13 kidedatik bakarra da emakumea, presidenteordea, hain zuzen. Euskadiko Software Libreko Enpresen Elkarteko (ESLE) zuzendaritza-batzordean kide guztiak (10) gizonak dira.

Organo horietan emakumeen ordezkari txikiagoa izatea honako fenomeno hauen adierazgarri da: alde batetik, emakumeak eremu hauetan berandu txertatu izanaren adierazgarri, eta, bestetik boteresferetara iristeko izaten dituzten zailtasun gehigarrien adierazgarri, esfera horiek maskulinizatuak izan baitira ohiko moduan.

EAEko komunikabideak: Azken hamarkadetan, komunikabideetan aurrerabide handia egin da emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez: handitu egin da emakumeen presentzia, partaidetza eta ordezkari. Dena dela, EAEko komunikabide garrantzitsuenetako¹⁷

¹⁶ Taula honetan ez daude sartuta Unibertsitate Eskoletako datuak.

¹⁷ Eustat-en arabera, ikusle/entzule/irakurle gehien dituztenak.

erantzukizun handiko postuetan emakumeen presentzia ez da, inolaz ere, orekatua. Oro har, irrati, egunkari eta telebista garrantzitsuenak aztertzen baditugu, 15 zuzendari gizonak dira eta soilik 3 emakumeak (emakumeak % 17 dira).

EAEEn entzule gehien dituzten irratietatik, soilik bitan da emakume bat zuzendari (Cadena Ser eta Onda Vasca); egunkari garrantzitsuenetako bakarrean (Noticias Gipuzkoa) eta EAEEn ikusle gehien dituzten telebista garrantzitsuenen artean (Telecinco, TVE-1, La Sexta eta Antena 3), ez dago emakumezko zuzendari bat bera ere.

Euskal Irrati Telebista (EITB) erakunde publikoari erreparatuta, zuzendaritzako eta erabakiak hartzeko postuetan emakumeen presentzia handiagoa da; emakume bat da zuzendari, bai eta EITB Irratian ere. Era berean, ETBko zuzendaritza-taldearen barruan (7 zuzendaritza nagusi daude) bi zuzendari daude.

2.4. GIZARTE-ARAUEN ETA BALIOEN ERAGINA

Arau sozialek eta genero-estereotipoek IGaren eremua eta gizon nahiz emakumeak IKtetara hurbiltzeko modua baldintzatzen dituzte, nabarmen baldintzatu ere, bai eta IKTak eskuratzeko eta erabiltzeko jarraibideak ere; halaber, eremu honetan eta eremu honekin gizonak eta emakumeak elkarrengaitzeko modua ere baldintzatzen dute. Horretaz gain, eremu hori barneratzeko prozesuan ere eragiten dute, eduki berriak sortu eta kudeatzeko.

Historian, zientziei eta teknologiei balio maskulinoak esleitu izan zaizkie, zeren maskulinitasuna arrazoiarekin, logikarekin, kalkuluarekin eta pentsamendu abstraktuarekin lotu izan baita **unibertso sinboliko** tradizionalan; aldiz, feminitasuna emozioekin, naturarekin, senarekin eta hizkuntzarekin lotu izan da.

Gure gizarteetan, lausoki gaur arte iritsi den unibertso sinboliko horretan, gizonak ohituta egoten dira teknologiekiko kontaktuan egotera txiki-txikitatik, jokoekin eta jostailuekin hasten direnetik (joko eta jostailu instrumentalak, manipulaziokoak, sormenezkoak eta ikerketakoak izan baitituzte). Teknologia konnotazio maskulinoa izateak lotura handia du emakumeen eragozpenekin, hau da, teknologia horien berezko tresnak eta hizkuntza eskuratzeko eta barneratzeko txiki-txikitatik izaten dituzten eragozpenekin. Horren ondorioz, neskak eta mutikoak **bereiz sozializatzen** direnez, indartu egiten dira sinesmen horiek, eta sinismen horiek, neskek eta mutilek diziplina jakin batzuetarako berezko joera dutela irizita, diziplina horietara bideratzen dituzte (gizarte eta giza diziplinetara, edo diziplina teknikoetara). Horregatik, teknologia ez dira neutroak generoari dagokionez.

IKTei eta IGari dagokienez, gizartean txertatuta dauden eta **generoarekin lotura duten estereotipo eta aurreiritziek** oso garrantzi handia dute gizonak IKtetara bideratzeko prozesuan eta *teknofilian* (teknologiekiko zaletasuna): komunikabideen, liburuen, publizitatearen bitartez zabaltzen den imajinario sozialean teknologiaren zaletuak gizonak, gazteak eta "freaky" samarrak izaten dira¹⁸.

Generoarekin loturiko estereotipo eta aurreiritziek ere eragina dute emakume askok IKtekiko izaten duten erresistentzian eta desafekzioan (*teknofobia*). Teknofobia hori hainbat modutara ager daiteke; adibidez, itxuraz neskek gaitasun txikiagoa dute matematiketarako eta zientzietarako, Pisa Txostenean adierazten denez. Eskolako gaitasunek, gainera, prestakuntzako eta lanbideko aukerak egiteko garaian ere eragina izaten dute, lehen ikusi dugun moduan.

¹⁸ Aitzitik, azken urteotan eredu berri eta berritzaileak sortu dira IGan eta teknologia berrietan adituak diren emakumeei dagokienez; hala nola Lisbeth Salander, Stieg Larsson idazlearen Millenium trilogian, edo Bones serieko Ángela Montenegro pertsonaia.

Eustatek badu informaziorik emakumeek maiz agertzen duten IKTekiko **desafekzio** handiago edo txikiago horri buruz. Horren haritik, EAEko biztanleei galdetuz gero zergatik ez duten interneterako konexiorik, emakumeen artean arrazoi nagusia honako hau da: "ez dute nahi, ez dute behar edo ez dakite" (emakumeetatik % 73k adierazi du hori eta gizonetatik % 67k); horren atzetik, bigarren arrazoia zera da, "ez dakitela zer egin behar den" (erantzun hori eman zutenetatik % 61 emakumeak ziren) eta "ez dutela ekipo egokia" (erantzun hori eman zutenen % 55 emakumeak ziren).

Erantzun hori ikusita, argi ikus daiteke **emakumeek eta gizonen nola ikusten duten beren burua** IKTekiko (emakumeek gaitasun edo prestakuntza txikiagoa dutela uste dute), baina bai eta IKTetara eta IGrara ez hurbiltzeko arrazoiak zeintzuk diren ere, emakumeen artean: horiekiko interesik eza; abantaila eta onuren berri ez izatea edo eguneroko bizitzan, euren premia eta helburu pertsonaletarako nola aplikatu ez jakitea; gaitasunik, trebetasunik edo ahalmenik ez izatea ordenagailua, internet edo bestelako gailuak erabiltzeko; teknologia horiek eskaintzen duten pribatutasun eta segurtasunarekiko konfiantzarik eza; konexioaren prezioa eta abar. Aurreiritzi tekniko, sozial eta moral ugari suma daitezke jarrera horietan eta horien maila areagotu edo murriztu egiten da emakume kolektiboaren arabera: adinekoak, etorkinak, prestakuntza txikia dutenak, landa-eremuak eta abar.

Aurreiritziz beteriko jarrera horiek eragotzi egiten dute emakume askoren gizarteratze digitala, eta genero-rol tradizionalak esleitzen dituen gizarteratze-prozesu zaharkitu baten ondorio ez ezik, mundu digitalarekiko ezjakintasunaren ondorio ere badira; beraz, prestakuntza eta trebakuntza ezinbestekoak dira oztupo horiek gainditzeko.

Halaber, **produkzio eta ugalketako zereginen banaketa tradizionala** oso urrun dago emakumeen eta gizonen etxeko erantzunkidetasunetik, eta banaketa hori ere oztupo izaten da emakumeek IKTekiko harreman inklusibo eta orekatuagoa izateko. Senitartekoak zaintzea eta etxeko lanak egitea emakumeei esleitu izan zaie, oro har. Hori dela eta, batik bat lan hori soldatapeko lanarekin gainjartzen denean, mugatu egiten dira emakumeek IKTetara hurbiltzeko izaten dituzten aukerak: batetik, ordutegiari, maiztasunari eta intentsitateari dagokienez, eta, bestetik, norberarentzat denbora, aisialdirako denbora izateari dagokionez, IKTetara askeago eta baldintzatzaile gutxiagorekin hurbildu ahal izateko, eta erabilera eta zerbitzu hain utilitaristak alde batera utzita, alderdi ludikoagoak, sortzaileagoak eta partaidetzakoak arakatu ahal izateko.

IKTak Jakintzaren eta Informazioaren Gizartera hurbildu eta bertan parte hartzeko ezinbesteko tresna ez ezik, berebiziko potentziala duten tresna ere badira **denboraren kudeaketan eraginkortasuna** hobetzeko. Duela hainbat hamarkada txertatu ziren lan-merkatuan, eta gero protagonismo handiagoa izan dute beste sektore batzuetan (administrazioan, ondasun eta zerbitzuen salerosketan, banku-jarduera elektronikoa, tele-

medikuntzan eta abar); horrek guztiak eragin garrantzitsua izan dezake eremu pertsonalean. Hain justu, e-administrazioa edo Administrazioak zerbitzuak internet bidez eskaintzea pertsonen bizitzako hainbat arlo hobeto uztartzeko lagungarri izan daiteke eta, ildo beretik, denbora hobeto kudeatzeaz gain, genero-rolen bilakaera ahalbidentzen ere lagun dezake (etxeko lanen banaketan erantzunkidetasun-maila handiagoa ere barnean hartuta)¹⁹.

Ondorio gisa zera esan dezakegu: administrazio publikoen eta herritarren arteko elkarreragina arian-arian digital bihurtuko den egoera batean, generoarekin loturiko eten digitalak areagotu egin daitezke, eta emakume asko, beste talde sozial ahul batzuekin atera, e-gizartetik at geratzeko arriskua egon daiteke. Beraz, lan handia egin behar dugu bide horretan.

Ziber-aktibismoari (feminista) eta aldaketa sozialari dagokienez²⁰, tresnak, euskarriak eta eduki digitalak eskuratzeko eta emakumeek mundu digitalean parte hartzeko, gainditu egin behar dira genero-aurreiritziak eta -oztopoak, baina denborak aurrera egitean, horiek gainditzen laguntzen du. Norberarentzako denbora konkistatu behar dute, teknologia horiek erabiltzeko aukera izateko, nortasun subjektibo digitalak sortzeko, haien artean harremanetan egoteko eta aktibismoko eta partaidetzako sareak sortzeko, gizonek orain arte egin izan duten moduan. Hori guztia ezinbestekoa da emakumeak I Gan sartu eta bertan parte har dezaten lortzeko. Gero eta emakume gehiagok blogak idazten dituzte²¹ eta LinkedIn, Facebook edo Twitter sareetan emakume aktibo asko daude; horiek guztiak abangoardia dira bide horretan.

Gune edo espazio birtual berriek aukera ematen die pertsoneri eta kolektiboeri euren istorioen protagonista izateko eta gizarte-aldaketa sustatzeko, espazio birtualean lehenik eta espazio errealean ondoren. Emakumeek aukera baliatu dute eta gune horietan **nortasun subjektibo** berriak sortzen hasi dira, haien artean harremanetan jartzen eta indarrean dauden estereotipo eta irudiak aldatzen; horretarako, IKTak ulertzeko, IKTetara hurbiltzeko eta IKTekin erlazionatzeko modua aldatu dute eta espazio digitala bereganatu dute, euren ikusmolde eta premien arabera. Internet plataforma erabakigarri bihurtu da, eta, azken hamarkadan, ziber-

¹⁹ Horren haritik, Euskadi @2015 Agenda Digitalaren jardun-ardatzetako bat EAEn zerbitzu digital aurreratu eta irisgarri berriak sustatu, sortu eta garatzea da, hainbat eremutan (sozio-sanitarioan, hezkuntzan, turismoan eta abar).

²⁰ Gai honetan interesgarria da Plataforma para la investigación y la producción artística sobre construcción identitaria y cultura digital x0y1.net plataformaren lanak kontsultatzea, bai eta [Remedios Zafra](http://RemediosZafra.com)ren webgunea ere; Remedios Zafra ziber-feminismoaren eta kultura digitalaren arloko ikertzaile eta saiakeragilea da.

²¹ Horri dagokionez, EAEn hainbat ekimen izan dira: [Getxoko Blogarien IV. topaketa](http://GetxokoBlogarienIV.topaketa.com), [Enredate proiektua](http://Enredateproiektua.com) edo EAEko blogosferan gero eta eragin handiagoa duten euskal emakume blogariak, hala nola: <http://blog.agirregabiria.net/2010/04/las-10-bloggers-mas-influyentes-de.html>

aktibismo feministako mugimendu berriak sortu dira emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde lan egiteko, ingurune berri honetan.

Hori guztia biziki interesgarria da **Sareko sexismoari edo ziber-jazarpenari** barru-barrutik aurre egiteko; izan ere, jarrera horiek gizarte-harremanetarako euskarri berri honetara ere iritsi dira. Sexismoaren eta genero-indarkeriaren aurkako kanpaina digitalak ikus daitezke sinbolikoki komunikabide digitaletan edo gizarte-sareetan, eta emakumeen diskriminazioa eta desoreka salatzen dituzten proiektuak ere badira, eremu honetako aktibismoaren gorakadaren adierazgarri²².

²² Adibidez, [Sexismo Cotidiano \(Eguneroko sexismoa\)](#) proiektua: mundu guztiko emakumeek eguneroko bizitzan pairatzen dituzten egoerak (diskriminazioa, indarkeria eta jazarpena) azaltzeko aukera dute.

2.5. BERDINTASUNAREN ALORREKO AGINDU ESPEZIFIKOAK

BERDINTASUN ARLOKO AGINDUAK	TRESNA JURIDIKOAK
<p>Informazioaren eta Komunikazioaren teknologien erabilera eta kalitatea hobetzea, bai eta herritar guztientzat haietarako sarbidea ere, 2014-2020 aldiko Europako Funtsen programazioan batera finantzatutako jardunetan.</p>	<p>2. helburu tematikoa Europako Batzordearen 2014-2020 aldiko Esparru Estrategiko Bateratuaren zirriborroa.</p>
<p>Emakumeei eta gizonei hezkuntzarako eskubide bera bermatzea, tratu-berdintasunaren printzipioa modu aktiboan barneratuz, hezkuntza-helburu nahiz -jardueretan, eta, jokabide sexistengatik edo halakoekin zerikusia duten gizarte-estereotipoengatik, emakumeen eta gizonen artean desberdintasunak sortzea saihestuz.</p>	<p>3/2007 Lege Organikoa, 24. artikulua.</p>
<p>Informazio Gizartearen programa guztiek barneratuko dute emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunaren printzipioa, eragingarritasunez kontuan har dadin, programok diseinatzean nahiz betetzean.</p> <p>Informazio- eta komunikabide-teknologien esparruan, oso-osoa edo zati batean diru publikoarekin ordaindutako proiektuetan bermatuko da hizkera eta edukia sexistak ez izatea.</p> <p>Emakumeak informazio-gizartean erabat sar daitezen sustatzea, programa bereziak garatuz, bereziki, informazio- eta komunikabide-teknologiak eskuratu eta horiei begira prestatzeko; programa horietara bilduko dira bazterketa-arriskua duten kolektiboak eta landa-esparruko kolektiboak. Informazio-gizartearen esparruan emakumeek sortutako edukiak ere sartzen dira horretan.</p>	<p>3/2007 Lege Organikoa, 28. artikulua.</p>

<p>Aukera-berdintasuna suspertzea informazio- eta komunikabide-teknologiak eskuratzeko orduan, landare-eremuko emakumeentzako politikak eta jarduerak erabiliz eta teknologia horien ordeko konponbideak aplikatuz, halako teknologiak heltzen ez diren tokietan.</p>	<p>3/2007 Lege Organikoa, 30.5 artikulua.</p>
<p>Genero-zeharkakotasuna txertatzea berrikuntza teknologikoaren eta IGaren eremuan garatutako politiken printzipio gidarizat.</p> <p>Zientziaren eta teknologiaren inguruneetan emakumeen parte-hartzeari buruzko ezagutza zabaltzea, bai eta generoarekin loturiko eten digitalari buruzkoa ere, politika eta jardun berriak diseinatzeko.</p> <p>Lidergoa barneratzea emakumeak eremu teknologikoetan protagonista izan daitezen, horretarako beharrezkoak diren gaitasunak eskura ditzaten (jario teknologikoa) eta talde kalteberak txertatzeko.</p> <p>Internet askatasun-eremu bihurtzera bideratutako jardunak diseinatzea, emakumeen proiektuen zabalkundea ahalbidetzeko; horretarako, generoarekin loturiko estereotipoak eta harremanak aldatzeko tresna izan behar du.</p>	<p>2008-2011 Aukera Berdintasuneko Plan Estrategikoa 1-5 HELB., 5. ardatza.</p>
<p>Emakumeak teknologian aurreratu eta intentsiboenak diren sektoreetan okupa daitezten sustatzea.</p>	<p>V. EGBPa, 2.1.1 HE.</p>
<p>Bazterketa-arriskuan dauden kolektiboen e-gizarteratzea sustatzea eten digitala minimizatzen berriazko ekimenak garatuta.</p>	<p>1.1 ardatza AD 2015 V. EGBPa, 2.3.1 HE.</p>
<p>Komunikabideetako programazioak egiteko orduan, ez dute hizkera sexistarik erabili behar, eta emakumeen parte-hartze aktiboa eta sexu bien presentzia orekatua eta irudi anitza bermatu behar dute, edertasun-kanonetatik eta sexu bakoitzak bizitzako arloetan betetzen dituen eginkizunei buruzko estereotipo sexistetatik aparte, eta bereziki zaindu behar dituzte ume zein gazteentzako edukiak.</p> <p>Emakumeek sustatutako edo emakumeek zuzendutako jarduera politiko, sozial eta kulturalen zabalkundea bermatu behar dute, gizonekiko</p>	<p>4/2005 Legea, 26.3 artikulua. 3/2007 Lege Organikoa, 36-41 artikulua.</p>

<p>berdintasunean, eta orobat emakumeak ahduntzeko lagungarri diren jarduerak ere.</p>	
<p>Hezkuntza-politika publikoak garatzea eta politika horiek bultzatu beharreko hezkuntza-ereduek helburu hauek izan behar dituzte: sexuaren araberako estereotipoak eta rola baztertuko dituen garapen integrala eskaintzea, bereizkeria-mota oro baztertzea, eta generoak behartu gabeko orientazio akademiko eta profesionala bermatzea.</p>	<p>4/2005 Legea, 28. artikulua. 3/2007 Lege Organikoa, 24. artikulua.</p>
<p>Ikasleak treba daitezen sustatzea, aukera akademikoak egiten dituztenean ez ditzaten aintzat hartu generoan oinarritutako baldintzapenak.</p>	<p>4/2005 Legea, 29.d) artikulua.</p>
<p>Unibertsitate-sisteman, betiere, emakumeek eta gizonek aukera berdinak izatea bultzatuko da, bai irakasle-karreran, bai erabakiak hartzen diren eremuetara sartzeko; eta, horrekin batera, ikasleek, sexuaren arabera, diziplina eta jakintza-arlo guztietan partaidetza orekatua izan dezatela sustatuko dute.</p> <p>Jakintza-arlo guztietako irakaslanean eta ikerketan lanetan genero-ikuspegia txerta dadin, hizkera ez-sexista erabil dadin, eta emakumeen jakintza eta emakumeek gizadiaren garapenari egindako garapen sozial eta historikoa jaso dadin bermatuko dute.</p>	<p>4/2005 Legea, 33.1 eta 33.2 artikulua. 3/2007 Lege Organikoa, 25. artikulua. V. EGBP, 2.1.6 HE.</p>

OHARRA: Informazioaren Gizarteari buruzko berdintasun-agindu espezifikoek gain, oro har sektore guztietan aplikagarri diren berdintasunari buruzko aginduak ere aztertu behar dira; horiek guztiak, generoaren araberako eraginari buruzko txostenak egiten lagundu duten materialetako [alderdi juridikoei buruzko dokumentuan](#) aurki daitezke.

3. LEGEDIA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO EREMUA

4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako EAEko V. Plana (EGBP)

Euskadiko 2015 Agenda Digitala

ESTATUKO EREMUA

3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarri bermatzekoa

Aukera-berdintasunerako plan estrategikoa (2008-2011)

Informazio Gizartean emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Ekintza Plana

EUROPAKO EREMUA

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako estrategia 2010-2015

Europa 2020rako Agenda Digitala

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Erregelamendu Proposamena, Esparru Estrategiko Bateratuan bildutako Funtsa hauei buruzko xedapen komunak ezartzen dituenak: Eskualde Garapeneko Europako Funtsa, Europako Gizarte Funtsa, Kohesio Funtsa, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsa eta Itsas eta Arrantzaren Europako Funtsa (EEB erregel.)

Batzordearen Zerbitzuetako lan-dokumentua: 2014tik 2020ra bitarte Eskualde Garapeneko Europako Funtserako, Europako Gizarte Funtserako, Kohesio Funtserako, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtserako eta Itsas eta Arrantzaren Europako Funtserako Esparru Estrategiko Bateratuari (EEB) buruzko elementuak (EEB)

Eranskinak

NAZIOARTEKO EREMUA

NBEren Munduko Goi-bilera Informazioaren Gizarteari buruz

4. DATU-ITURRIAK

ADIERAZLEAK ETA GAKO DATUAK	ITURRIA	ALDIZK.
<ul style="list-style-type: none"> • 15 urte eta gehiagoko biztanleak etxeko IKT ekipamenduaren arabera, sexuaren, adinaren, ikasketa-mailaren eta jardueraren arabera • Ikasleak eta ikastetxeko IKT ekipamenduak, sexuaren eta adinaren arabera • Landunak eta lantokiko IKT ekipamenduak, sexuaren eta adinaren arabera • Ordenagailua erabili duten 15 urteko eta gehiagoko biztanleak, erabileraren, sexuaren, lurralde historikoaren eta adinaren arabera • Internet erabili duten 15 urteko eta gehiagoko biztanleak, erabileraren, sexuaren, lurralde historikoaren eta adinaren arabera • Merkataritza elektronikoa erabili duten 15 urteko eta gehiagoko biztanleak, sexuaren, erositako produktuen, adinaren eta lurralde historikoaren arabera • Internet ez duten 15 urteko eta gehiagoko biztanleak, sexuaren, arrazoen, aldiaren eta lurralde historikoaren arabera 	<p>Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta. Familiak (2013) Eustat</p>	<p>Urtero</p>
<ul style="list-style-type: none"> • Aurreko 3 hileetan ordenagailua, internet eta telefono mugikorra erabili duten 16-74 urteko biztanleak, ezaugarri demografikoen arabera eta Autonomia Erkidegoaren arabera. • Aurreko 3 hileetan ordenagailua, internet eta telefono mugikorra erabili duten 16-74 urteko biztanleak, ezaugarri sozioekonomikoen arabera eta Autonomia Erkidegoaren arabera. • Aurreko 3 hileetan ordenagailua, internet eta telefono mugikorra erabili duten 10-15 urteko biztanleak, Autonomia Erkidegoaren arabera. 	<p>Etxeetan Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien ekipamenduari eta erabilerari buruzko inkesta (2012).</p> <p>EIN</p>	<p>Urtero</p>

<ul style="list-style-type: none"> • I+Gko langileak (lanaldi osoaren baliokidea) IKT sektorean, IKT sektorearen, langile motaren eta generoaren arabera. 	<p><u>Informazioaren eta komunikazioen teknologien (IKT) sektoreko adierazleak</u></p> <p>EIN</p>	<p>Urtero</p>
<ul style="list-style-type: none"> • IKTen sektoreko I+Gko establezimenduen eta langileen kopurua, sexuaren, lurralde historikoaren eta azpisektorearen arabera. 	<p><u>IKT sektoreari buruzko estatistika</u></p> <p>Eustat</p>	<p>Urtero</p>
<ul style="list-style-type: none"> • Matrikulatutako ikasleak, mailaren eta modalitatearen arabera. Zentro guztiak. Emakumeak. • Zentro publikoetako irakasleak, autonomia-erkidego/probintziaren, kidego/kategoriaren eta sexuaren arabera. 	<p><u>Unibertsitatez kanpoko Irakaskuntzei buruzko Estatistikak. Emaizta xehatuak.</u></p> <p>Hezkuntza Ministerioa</p>	<p>Urtero</p>
<ul style="list-style-type: none"> • EAEko lanbide-heziketako ikasleak, graduaren, familiaren, lurralde historikoaren eta sexuaren arabera. • Unibertsitateko Irakaskuntza. Ikasketak burutu dituzten ikasleak, guztira, titularitatearen, zikloaren, adarraren eta sexuaren arabera. • Unibertsitateko Irakaskuntza. Lehen eta bigarren zikloko eta graduiko ikasketak burutu dituzten ikasleak, unibertsitateko ikasketaren, lurralde historikoaren eta sexuaren arabera. 	<p><u>Irakaskuntzaren Estatistika</u></p> <p>Eustat</p>	<p>Urtero</p>
<ul style="list-style-type: none"> • Jakintza-arloaren araberako oinarrizko adierazleak, sexuaren eta Autonomia Erkidegoaren arabera. • Jakintza-arloaren araberako langile motak, sexuaren eta Autonomia Erkidegoaren arabera. • Jakintza-arloaren araberako unibertsitateko irakasleen kidegoak, sexuaren eta Autonomia Erkidegoaren arabera. 	<p><u>Unibertsitateko irakaskuntzen estatistikak. Unibertsitateko langileak.</u></p> <p>Hezkuntza Ministerioa</p>	<p>Urtero</p>

5. ERREFERENTZIA-AGIRIAK

AZTERLANAK ETA TXOSTENAK

- Informazioaren Gizartearen Panorama Euskadi 2012. Eustat.
- Euskadiko Informazio Gizartearen adierazleak 2009. SPRI.
- Emakumeak eta gizonak Euskadin 2012. Emakunde.
- La brecha digital de género en España 2011. Un análisis multinivel (2011). e-igualdad.net behatokia.
- La brecha digital de género. Amantes y distantes (2009). e-igualdad.net behatokia.
- eEspaña. Informe anual 2012 sobre el desarrollo de la Sociedad de la Información en España (2013). Orange Fundazioa.
- Mujeres en la web. Marcando tendencias en internet (2010). ComScore.
- Ikuskerak 6. Hedabideak (2013). Eusko Jaurlaritza.

ESKULIBURUAK ETA GIDALIBURUAK

- Guía TIC. Igualdad para las Administraciones Públicas, Instituciones y Organismos de Igualdad. Directa Fundazioa.

